

6. ZK. ALDIZKARIA 2009

REVISTA

Kontsumo

ALDIZKARIA

Gaia honako hau da...

Gastu arduratsua

Gastu arduratsua

Herritar gehienak ustekabeen harripatu dituen mundu osoko krisialdiak ilundu egin du gure kontsumoko eta ongizateko urrezko garaia. Orain, inoiz baino gehiago, gastuaren aurreikuspen eta kontrol egokia egitea beharrezkoa da, izan ere, krisialdiarekin edo gabe, bizitzak aurrera baitirau.

Zarate familia Jose Luisek (aita), Evak (ama), Anek (alaba zaharrena) eta Xabi eta Iker bikiek osatzen dute.

Larunbat arratsaldea da eta familia osoak hiriaren kanpoaldeko merkataritzagunera joatea erabaki du asteko erosketa egitera.

Supermerkatuan, bikiek nahi duten guztia hartu eta erosketarako organ sartu dute, eta hori horrela, Evak gainezka egin du, ez baitzaio normala iruditzen bikiek "dena nahi izatea".

Kutxatik pasatu eta ordaintzerakoan, Evak eta Jose Luisek hurrengo erosketa egiterakoan erosketa-zerrenda eraman eta behar-beharrezkoa dena bakarrik erosiko dutela erabaki dute, eta horrela, behar ez diren artikulua erosteak dakarren gehiegizko gastua zenbaterainokoa den ikusaraziko diete bikiei.

Erosketak furgonetan gorde ondoren, merkataritzagunean paseotxo bat ematea erabaki dute. Bat-batean, Xabi eta

Iker elektronikak baten aurrean gelditu dira eta aita eta ama konbentzitu nahi dituzte erakusleihoan dagoen kontsola, eskaintzan dagoena gainera, zein ona eta zein entretenigarria izan daitekeen esanez. Dendaren barruan tenis-jokoan partida bat joka daitekeen kontsola bat ikusi dute eta semeen gogo biziak eraginda, azkenean, kontsolak eskaintzen dituen prestazioak ikustera sartzea erabaki dute.

Tarte batez jolasean ibili ostean, Evak eta Jose Luisek kontsola erostea familia-jarduerak egiteko aukera ona izan daitekeela uste dute eta, azkenean, erostea erabaki dute. Minutu bat bera ere galdu gabe, etxerako bidea hartu dute beren erosketarekin gozatzeko.



Gastu arduratsua

Erosketa arduratsua egiteko orduan, kontuan hartu beharreko zenbait irizpide dago:

- Behar-beharrezkoak diren produktuekin erosketa-zerrenda egin, erosketa oldarkorrik ez egiteko.
- Erosketak egiteko dugun aurrekontua jakin, aurrekontu horretara mugatuta beharrezkoak ez diren erosketak ez egiteko.
- Aurrekontuaren barruan, gastu finkoak, aldizkako gastuak eta ustekabeko gastuak zeintzuk diren planifikatu, horrek epe ertain eta luzera ekonomia kontrolatzen lagunduko baitu.
- Aurrekontuak errealista izan behar du eta ez da bihurtu behar asmo-adierazpen edo gastu finkoen zerrenda soil, askotan gertatzen den moduan. Pertsonalizatua ere izan behar du eta egoerari, diru-sarrerei eta zerrenda egiten duenaren gastu-ohiturei egokitu behar zaio.



Etxera iritsi eta Zarate familiak postontzia gainezka dagoela ikusi du: fakturak, publizitatea... Postontzia hustu eta igogailuan igo dira. Evak gas-konpainiaren gutuna ireki du eta zer-nolako ustekabekoa hartu duen, beste behin ere, gastua gehiegizkoa dela ikusi duenean! Ia konturatu gabe, bere familiaren gasaren erabilera hasi zaio burutik pasatzen...

Gehien gastatzen duena, zalantzarik gabe, Ane da, bere 30 minutuko dutxeekin, baina Jose Luisek ere ez du asko laguntzen berogailua goiz-goizetik pizten hasita. Bikiak ez dira atzean geratzen: egunero, ontziak garbitzea nori dagokion zozkatu ondoren, inori ez zaio burutik pasatzen uraren temperatura erregulatzea erabilera iraunkorra izateko.

Evak esku hartzea erabaki du eta familia konbentzitu du denen artean neurri batzuk hartuz energia-kontsumoko gastu handi horiek guztiak murrizteko.

Fakturen gastua kontrolatzeko honako hauek izan behar ditugu kontuan:

- Berogailuaren eta ur beroaren sistema etxe bateko energia-gastuaren % 30 izan daiteke.

Gastu arduratsua

- Instalazio zentral kolektiboko sistemak banakako sistemak baino eraginkorragoak dira energetikoki, energia gutxiago kontsumitzen baitute.
- Sistemarik eraginkorrena ur-galdara eta ur-erradiadoreen bidezko berogailu-sistema da.
- Oro har, etxe bateko erosotasunaren temperatura 19° eta 21° bitartekoa da.
- Dutzak bainuak baino ur gutxiago kontsumitzen du eta are gutxiago kontsumo txikiko dutxa-buruak erabiltzen badira.
- Ur azpian ematen den denbora kontrolatu behar da, kanila itxiz xaboa emateko.
- Ahal den guztietan, argi naturala erabili. Ekologikoa eta doakoa da.
- Gela batetik ateratzen garen bakoi-tzean argiak itzali behar dira.
- Kontsumo baxuko aparatu elektriko eta etxetresna elektrikoen alde egin behar da: A kalifikaziokoak aukeratu, elektrizitate gutxiago gastatzen dute eta, beraz, dirutxo bat aurrezteko aukera ematen dute.

Evak ireki dituen gutunen artean, gas, elektrizitate- eta ur-fakturez gain, dauzkaten bi maileguen ordainketa-epeen abisuak daude, etxea ordaintzeko kontratatu duten hipotekarena eta autoa erosteko kontratatu duten mailegu pertsonalarena.



Jose Luisek esan du telebistan ikusi duela hilero diru gutxiago ordaintzeko maileguak bateratzen dituzten erakundeak daudela. Aldez aurretik Evari ez zaio ideia txarra iruditu, baina pauso hori eman aurretik informazio gehiago bildu behar dutela uste du. Bere izeba Begoñak, duela urtebete, kredituak bateratzea eskatu zuela gogoratu da eta hari kontsultatzea erabaki dute.

Begoñak esan die ez zaiola errentagarria gertatu epe luzerako produktua delako eta diru gehiago ordaindu duelako, eragiketaren kostuak kontuan izan gabe. Eskaintza arretaz aztertuta, Jose Luisek eta Evak zerbitzu hori ez kontratatzea erabaki dute.

Gastu arduratsua

Maileguak kontratatzerakoan, berriz, honako hauek izan behar dira kontuan:

- Kontsumorako maileguak interes handiko produktuak dira. Eskuratu baino lehen, gastu finkoak zenbat handitzen diren aztertu behar da.
- Finantza-erakundeek ezartzen dituzten baldintzak berrius daitezke: ordainketen geroratzeak, baliogabetzeak...
- Finantza-zerbitzuak erosteko, garrantzitsua da UTB (Maileguen Urteko Tasa Baliokidea) kontuan izatea.
- Kredituak bateratzea zenbait kreditu hipoteka-kreditu batean biltzea da, zorren ordainketa geroratzuz.
- Bateratze hori finantza-erakundeek eta zorra kudeatzen duten agentzia bitartekariak eskaintzen dute. Agentzia bitartekariak ez daude Espainiako Bankuaren kontrolpean, ezta finantza-erakundeen araudiaren kontrolpean ere eta, beraz, ez dute bezeroak hobeto babesteko banku-merkatuek dituzten babes-neurririk.

Zorrek bateratzea kontratatu baino lehen, honako hauek izan behar dira kontuan:

- Zorrek kobratzen dituzten agentzien edo enpresen komisio handiak.

- Kreditua ordaintzen jardungo dugun epea, epe hori zenbat eta luzeagoa izan orduan eta interes gehiago ordaindu beharko direlako.

- Bateratze-eragiketaren guztizko gastuak.

Bikiek laster 12 urte beteko dituzte eta familiak erabakia du zein izango den aurtengo oparia: telefono mugikor bana. Zalantzak hasiera-hasieratik dituzte, ez baitakite zer telefono hartu ezta zer konpainia kontratatu ere. Anek, Jose Luisek eta Evak bakoitzak bere mugikorra du, denek konpainia berarekin, baina fakturen gastua nahi izango zutena baino handiagoa denez, hauxe izan daiteke konpainia desberdinen artean prezioak alderatzen hasteko unea. Bestalde, aparatuaren kontua dago. Evak eta Jose Luisek elkarrekin kontaktuan egoteko aparatu sinple bat oparitu nahi diete, baina haiek azken belaunaldikoak nahi dituzte, prestazio onenekin.



Gastu arduratsua

Mugikorra kontratatzeko konpainia desberdinetara egindako bisitak aprobetxatuz, Internet etxean jartzeko ADSLren tarifak kontsultatu dituzte. Aspalditik ari dira Internet jartzeko aukera aztertzen, Aneri eskola-lanetan laguntzeko eta Jose Luisek Argentinan duen anaia-rekin maizago hitz egiteko aukera izan dezan. Internetek anaia-rekin harremanetan egoteko aukera emango dio eta telefonoaren gastua ez da hain handia izango.

Telefono mugikorraren aparatua aukeratzeko orduan, gure beharretara gehien egokitzen dena hartu behar da, publizitatearen tentaldietan erori gabe.

Konpainia hautatzeari dagokionez, berriz, zenbait puntu izan behar dira kontuan:

- Operadore bakoitzak ematen dituen zerbitzuei eta prestazioei buruzko informazioa jaso behar da. Horretarako, liburuxkak eta operadoreen tarifak aztertuko dira, baita publizitatea ere. Erosi edo kontratatu baino lehen, beti aurrekontua eskatu behar da.
- Konpainia jakin bat aukeratu ondoren, kontratua sinatu baino lehen arretaz irakurri eta kontuan hartu klausulak eta letra txikia. Gainera, kontratuak eta ordainagiriak eskatu eta gorde egin behar dira.

- Telefono mugikorraren konpainia aldatzeari dagokionez, eramangarritasun-eskubidea badago, baina ez dugu ahaztu behar aurreko konpainiarekin sinatu genuen iraute-kontratuaren iraunaldia.

Kontuan hartu beharreko beste hainbat puntu:

- Erreklamatu ahal izateko, faktura edo tiketa beti gorde behar da.
- Telefonía erabiltzaileen eskubideak eza-gutzea komeni da.

Hori guztia dela-eta, Evak eta Jose Luisek gerrikoa gehiago estutu behar dute eta aurrezteko beste neurri batzuk hartzea erabaki dute, garraioarekin hasita.

Evak egunean 30 minutuz gidatzen du hiritik hurbil dagoen poligono batera lanera joateko eta etxean bazkaltzen du arratsaldean berriro lanera joan aurretik. Jose Luisek etxetik 20 minutura lan egiten du, baina berak ere autoa erabiltzen du erosotasunagatik.



Gastu arduratsua

Evak Internet erabili du lan- edo ikasketa-puntuetara joateko autoa konpartitzen duen jendearen orrialdeak kontsultatzeko, eta berak lan egiten duen poligonoan bertan eta berak duen ordutegian lan egiten duten beste 3 lagunekin harremanetan jarri da. Orain autoa txandaka eramaten dute eta gasolina-ren gastua % 75ean murriztu da.

Jose Luisek autoa aparkatu eta lanera oinez joatea erabaki du.

Garraioari dagokionez, honako hauek dira har daitezkeen aurrezteko neurrietako batzuk:

- Garraio publikoa erabili.
- Bide bera egin behar dutenekin eta ordutegietan bat datozenekin garraio-bidea konpartitu.
- Beste bide batzuk erabili, hala nola oinez edo bizikletaz joatea.

Hilabete batzuk geroago eta hartutako erabakiei esker, "Zaratetarrak" lasaia-go heltzen dira hilabete amaierara. Hori bai, erne daude eta familia osoak egunez eguneko gastua kontrolatzen du .



6. ZK. ALDIZKARIA 2009

REVISTA

Kontsumo

ALDIZKARIA

Zuri gerta dakizuke

Zuri gerta dakizuke

Ondasun eta zerbitzuak kontratatu edo erosteko establezimendu batera jotzen dugunean, establezimendu horrek ohiko ordainketa-metodoak eskaintzen dizkigu normalean, hau da, esku-dirutan edo txartelen bitartez ordaintzeko aukera eskaintzen digu. Hori ez ezik, ordaintzeko beste erraztasun batzuk ere eman ohi dizkigu establezimenduak, kreditu finantziatuak, esaterako, doakoak izan edo ez izan. Establezimenduak, eta ez kontsumitzaileak, finantziazio-metodo horiek zein bankurekin egin behar diren hautatzen du, eta, horren ondorioz, askotan, kontsumitzailea ez da baldintzez jabetzen; jakina, horrek arazoak sorraz ditzake ondorenean.

Hurrengo kasua dugu horren adierazgarri:

KASUAREN AZALPENA

Erreklamatzailerak hizkuntza-eskoletara joateko kontratua sinatu du irakaskuntza-akademiarekin.

Kontsumitzaileak akademiako langileen aurrean sinatu behar ditu kontratuak, eta langile horiek ikastaroaren baldintzen eta guztizko kostuaren berri eman behar diote; gainera, eskolak hasi aurretik ikastaroaren prezio osoa ordaindu behar duela jakinarazi behar diote.

Ikastaroa ordaintzeko metodoei dagokienez, esku-dirutan egin dezake, edo

banku-finantziazioaren bitartez, edo bestela finantza-entitate batek akademiaren bitartez eskaintzen duen ikasketa-kreditu baten bidez. Erreklamatzailerak kontratua sinatu ondoren, finantza-entitateak, maileguaren zenbatekoa sartzen du akademiaren kontuan.



Erreklamatzailerak finantziazioaren aukera hautatu du, eta beraz, bi kontratu egin behar izan ditu matrikulatzeko, bata, ikasketari dagokiona, irakaskuntza-akademiarekin, eta bestea, maileguari dagokiona, finantza-entitatearekin, ikasketa-kreditua lortzeko.

Zuri gerta dakizuke

Ikastaroaren erdialdean zerbitzuaren prestazioa utzi behar duela iragarri du akademiak, eta, horrenbestez, ezin izango duela eskolak eskaintzen jarraitu, ezta kontratuaren arabera eskaini beharreko gainerako zerbitzu pedagogikoak ere.

Erreklamatzailerak, kontratatua eta ordaindua duen ikastaroarekin aurrera jarraitu ezin dezakeela ikusirik, demanda bat aurkeztu du finantza-entitatearen aurka, eman gabeko ikastaro zatiari dagozkion ordainketak itzultzeko.

Finantza-entitatea demandaren aurka azaltzen da, ikasleei emandako kredituak interesik gabekoak direla, eta ondorioz kontsumorako kredituari buruzko Legearen aplikazio-eremutik kanpo geratzen direla argudiatuz.


EBAZPENA

Epaiaren arabera, irakaskuntza-kontratuari lotutako finantziazio-kontratua ez da eraginkorra. Izan ere, Kontsumorako Kredituari buruzko Legearen 15. artikuluen arabera, akademiak irakaskuntza-kontratua bete ez duenez, kontratu hori finantzatzeko kontratua ere ez-eraginkorra da, honako kasu hauetan:

- Kontsumitzaileak kontratua hizkuntza-akademia ez den entitate batekin sinatu badu.

- Hizkuntza-akademiaren eta finantza-entitatearen artean aldez aurreko akordioa badago, finantza-entitateari akademiako bezeroei maileguak eskaintzea ahalbidetzen diona.

- Kontsumitzaileak, hizkuntza-akademia eta finantza-entitatea ados jarri ondoren lortzen badu mailegua.



Zuri gerta dakizuke

Kontsumorako Kredituari buruzko Legearen artikulua horren arabera, irakaskuntza-jarduerak utzi eta hurrengo hilabetetik aurrera ordaindutako maileguetatik eratorritako kuotak ezin zaizkio kontsumitzaileari eskatu.



Epaiaren arabera, finantza-entitateak demandatzaileari itzuli egin beharko dizkio eskolak emateari utzi zutenez geroztik ordaindutako diru kopuru guztiak.

Epaiak zera lortu nahi du, batetik, hizkuntza-akademiaren eta eraginpeko ikasleen arteko prestakuntza-kontratua suntsiaraztea, kontratua ez delako bete, eta, bestetik, eta suntsiarazpen horren ondorioz, prestakuntza-kontratuaren eta finantziazio-kontratuaren arteko lotura ebaztea, horrela, Kontsumorako Kredituari buruzko Legearen 15. artikulua aplikatuz, finantza-entitateekiko kreditua suntsiarazteko.

Gainera, honetan bezala, kasu batek pertsona bat baino gehiago hartzen baditu eraginpean, indarrak batzea komeni da, eta, horretarako, hobe da Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Bulegoetara, KIUBetara edo kontsumitzaile-elkarte batera jotzea, kontsumitzaileen interes kolektiboak ordezkari ditzaten, Justizia Administrazioaren aurrean aurkez ditzaketen erreklamazioei utzi gabe.

6. ZK. ALDIZKARIA 2009

REVISTA

Kontsumo

ALDIZKARIA

Zure eskubidea da...



Zure eskubidea da...

Gaur egun, pertsona asko zorpetuta edo "hipotekatuta" bizi dira, horrela, ordainketa asko geroratuz eta garrantzi handia emanez banku-erakundeei haien baliabide ekonomikoak kudeatzeari dagokionez.

Kasu horietan, ahal den heinean, beharrezkoak ez diren arriskuak saihestu behar dira.

Jarraian agertzen diren eskubide eta prebentzio-neurriek etxeko ekonomia eta banku-erakundeekiko harremana oztopa dezaketen alderdi guztiekin dute lotura:

****Banku-zerbitzu bat kontratazko prozesuan ditugun eskubideak:**

Banku-zerbitzu bat kontratatu AURRETIK ditugun eskubideak:

- Honako hauei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea: bankuko komisionen tarifak, kobra daitezkeen gastuak eta kreditu-erakundearen balioespen-arauak. Datu horiek Espainiako Bankuan egon behar dute erregistratuta eta erakundeek ezin izango dizkiote eskatu kontsumitzaileari eta erabiltzaileari jakinarazitakoak baino zenbateko handiagoak edo haietan barne hartu gabe dauden kontzeptuengatik kobratu, salbuespen-kasu

jakinetan ez bada.

- Etxebizitzeari buruzko hipoteka-maileguren doako informazio-liburuxka izatea.
- Erakundearen eskaintza lotesleak doan lortzea etxebizitzeari buruzko hipoteka-maileguetan, kanpoko banku-transferezentzietan, erakundea aldatzeagatiko hipoteka-subrogazioetan eta kontsumorako kredituan.
- Eragiketen kontratu-ereduak edo erakundeek eskainitako produktuak eza gutzea.
- Kreditu-erakundeak eragiketa edo eskainitako produktua ondo ulertzeko beharrezkoa den informazio guztia ematea.



**Iturria: Banco de España

Zure eskubidea da...

Banku-zerbitzu bat KONTRATZEN DUGUNEAN ditugun eskubideak:

- Kontratuaren ale bat eskatu eta jasotzea.

Banku-zerbitzu bat KONTRATATU ONDOREN, kontsumitzaile eta erabiltzaileak honako hauetarako eskubidea du:

- Interesen likidazioari eta banku-komisionari buruzko laburpenak eta agiriak jasotzea.
- Erakundeak interes-tasaren, banku-komisionen eta eragiketen gastuen aldaketen inguruan erabakitakoari buruzko alde zuzeneko informazioa jasotzea.
- Erreklamazioak, kekek eta kontsultak konpontzeko prozedura edukitzea.

****Datuak babestea.**

Zerbitzu bat emateko banku-erakundeek lortzen duten edozein datu (erabiltzailearena) araudiak babesten du. Horrek honako hau esan nahi du:

- Datu horiek ezin dira erabili dagoeneko ezarrita dauden helburuak ez diren erabiltzailearen baimen aserik, zehatzik, garbirik eta informaturik gabe.

- Kontsumitzaile eta erabiltzaileari produktua edo zerbitzua kontratatzeko beharrezkoak diren datuak baino ez zaizkio eskatuko.
- Erabilitako datu pertsonalek eguneratuta egon beharko dute eta benetan erabiltzailearen egoerari erantzun beharko diote.
- Erabiltzaileak datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurka egiteko eskubidea du.



- Datu pertsonalak datu pertsonalen fitxategi batean bildu eta erabiliko dira, eta fitxategi hori zehatza izango da erakundearen barruko erabilerarako.

Aurrezteko bermea.

Botere publikoek finantza-sistema egonkorra zaindu behar dute, erabiltzaileek finantza-erakundeetan gordetako dirua berreskuratuko dutela bermatuko duena, hain zuzen ere.

**Iturria: Banco de España

Zure eskubidea da...

Horretarako, ahal den heinean banku-erakundeetan gordetako dirua erraz eta azkar berreskuratzea ahalbidetzea bermatzen duen Estatuko edo nazioarteko funtsa dago, erakunde batek porrot egiten badu edo kaudimengabezia-egoeran badago.

Banku-kontsumitzaile eta erabiltzaile gisa ditugun eskubideez gain, hainbat alderdi kontuan hartu behar ditugu beharrezkoak ez diren arriskuak saihesteko. Hona hemen alderdi horietako batzuk:

Egoera identifikatzea.

Gure etxeko ekonomia zer egoeratan dagoen jakiteko modurik onena, hasteko adibidez, hilabete batean dauzkagun gastu guztiak zeintzuk diren jakitea da. Neurri ona izan daiteke asteko gastuen kontrola egitea.

Jarrera arduratsua da gastuak murriztu edo lehenetsi behar diren zehaztea, erreferentziatzat etxe bakoitzean dauden diru-sarrerak hartuta.

Zorrak handiak badira, koherenteena honako hau da: zorraren murrizketa aurrekontuaren lehentasun nagusi bihurtzea eta daukagun dirua edo hilabetearen amaieran soberan eduki dezakeguna zor horiek murriztean inbertitzea, gasturik handiena eragiten duten zorrekin hasita (mailegu pertsonalak).

Gehiegizko kontsumoa saihestea.

Beharrezkoa denaren eta funtsezkoa ez denaren arteko aldea aztertzea oso baliagarria izan daiteke beharrezkoak ez diren gastuak saihesteko.

Horretarako, oso baliagarriak izan daitezkeen zenbait aholku daude:

- Zentzuzko kontsumoan oinarritutako autokontrola egitea, aurrekontu eta alde zurrenda batetik abiatuta.
- Beharrezkoak diren gastuak identifikatzea, saihestu ezin daitezkeenak, hain zuzen ere, hala nola, elektrizitatea, uraren, gasaren, elikaduraren eta abarren fakturak.
- Saihets daitezkeen gastuak identifikatzea, adibidez, beharrezkoak ez diren erosketa txikiak egitea.



Zure eskubidea da...

■ Gastu batzuetarako (arropa, garraioa eta abar) alternatiba merkeagoak bilatzea eta produktu batzuk berriz erabiltzea.

****Kreditu-txartelak erabiltzean kontuan izan beharrekoak.**

Banku-txartelak eta merkataritza-establezimenduek emandako txartelak zentzuz erabili behar dira. Hainbat txartelen erabilerarekin lotutako amu eta eskaintzek txartel horiek ordaintzeko bide gisa etengabe erabiltzea eragin dezakete.

Txartel bat kontratatzeak abantaila eta kontuan izan beharreko gauza batzuk eragiten ditu:

■ Txartelak ondasunak eta zerbitzuak kitatzeko eta kutxazainetan eta erakundeen "leihatiletan" dirua eskudirutan ateratzeko aukera ematen duten ordaintzeko tresna dira.



■ Erakundeak kontratuaren kopia bat eman behar du 60.000 eurotik beherako kreditu-muga duen bankuko kreditu- edo kargu-txartela izatean eta, eskatzen bada beti eman behar du.

■ Kitatzeko agiriak jasotzeko eskubidea dugu.

■ Aldaketak izatean aldeztatik eta zuzenean jakinarazi egin behar digute.

■ Edozein unetan kontratua ez berritzeko edo atzera egiteko eskubidea dugu, kontratuan bildutako itunen arabera.

■ Unean unean banku-komisioak ordaindu behar dira eta kreditu-txartela bada, berriz, itundutako interesak.

■ P.I.N.a behar bezala zaindu behar dugu eta pertsonala eta besterezina dela gogoratu.

■ Txartela galdu edo lapurtuz gero, erakunde transmititzaileari berehala jakinaraziko diogu txartelari baja emateko.

■ Txartela kreditua lortzeko metodo gisa erabiltzea saihestu behar da ordaintzeko kontzientzia lausotu baitezake, gehiegi kontsumitzea edo ez daukagun dirua xahutzea eragin baitezake.


**Iturria: Banco de España

Zure eskubidea da...

Aurre egin diezaiekegun baino zor gehiago ez izatea.

Pertsona batek bere gain hartutako arrisku-ehunekoak muga bat eragiten du bi hauen artean: alde batetik, etorkizuna ziurtasunez planifikatzeko arriskurik gabeko ekonomia, eta bestetik, arazoizkoaren mugako bizimodua.

Muga gainditzeak kontsumitzaileak kontsumitzeko mailegu pertsonalak kontratatu behar izatea eragin dezake, eta erakargarriak badira ere, oso interes handian izan ohi dira. Mailegu mota hauek kontratatu aurretik gastu finkoak zer neurritan handitzen diren eta erosiko den produktuaren edo zerbitzuaren benetako premia ebaluatu behar da.



Kontratua sinatu aurretik, ordainketen (interesak, ordainketak eta abar) geroratzeari buruzko baldintzak kontuan hartu eta negoziatzea.

Kreditu bat itzultzeko zailtasunak baditugu, hobe da mailegua eman digun erakundeari jakinaraztea eta kredituaren etorkizunari buruzko akordioaren bat bilatzea, lehenengo kreditua itzultzeko bigarren kreditu bat eskatzeak finantza-egoera okertzen baitu.

Publizitatea kontrolatu egin behar da.

Publizitatea zabaltzeko edo jendeari ondasun edo zerbitzu baten berri emateko diseinatuta dago produktu hori kontsumitzeko edo erabiltzeko.

Publizitateak zerbitzuen eta produktuen alderdi positiboak azpimarratzen ditu jende objektiboa erakartzearen. Horregatik, interesa izanez gero, alde aurretik hainbat iturritatik informazioa lortu eta zuhurra izan behar da ondorioak ateratzeko garaian. Burua hotz eduki behar da, ikuspegia eskuratu eta zerbitzuaren edo produktuaren alde onak eta txarrak balioetsi erabaki arduratsua hartzeko.

Zure eskubidea da...

Arreta berezia eskaini konfiantza jarritako finantza-erakundeari eta baita balizko ezkutuko kredituei edo bateratutako kredituei.

Dirua gordetzeko banku-erakundea aukeratzeko garaian, oso kontuan hartu behar da inbertsio-zerbitzuak eskaintzen eta ematen dituzten erakunde batzuk ez daudela Espainiako Bankuan erregistratuta. Erakunde horiek herritarrei errentagarritasun handiak eta etekin eta eskaintza oso deigarriak eskaintzen dizkiete eta bezero asko erakartzen dituzte betetzeko zailak diren konpromisoekin eta itxaropen faltsuekin.

Konpainia mota horien produkturik arrakastatsuen bateratutako kredituak dira; egoera ekonomikoak etxeko ekonomietan aldaketak eragiten dituzten uneak baliatzen dituzte. Xehetasun guztiak aztertzea komeni da horrelako eragiketa bat egin aurretik.

Mota horretako zerbitzua eskaintzen duten bitartekari askok ez dute eragiketari buruzko informazio guztia eskaintzen eta kasu askotan ez dituzte kontuan hartzen bateratzeek eragiten dituzten xehetasun guztiak. Honako irregulartasun hauek dira erreklamatzeko ohikoak diren arrazoiak: neurriz kanpoko klausulak, publizitate engainagarria, idatziz egindako kontraturik ez izatea, oso interes

handiak eta bat ez datozen ordainsariak eta kalte-ordainak ordaintzea.

Horregatik, informazioa lortzea eta dokumentazioa, berariazko baldintzak eta erantzun argiak eskatzea beharrezkoa da.



Finantza-hezkuntza handitzea.

Bankuen mundua hain da konplexua eta eskaintza hain da askotarikoa, non horrek erabiltzaileei finantza-produktuak, kontzeptuak eta arriskuak hobeto ezagutzea eskatzen baitie informazioaren, ikastearen edota aholkularitza objektiboaren bidez.

Honako hauek dira edozein kontsumitzaileek kontuan hartu behar dituen gauzak:

Zure eskubidea da...

finantza-arrisku eta aukerei buruzko kontzientzia handiagoa eskuratzeko heztea, erabaki informatuak hartzea eta nora jo jakitea aholkua eskatzeko.

Kontratuetakoa letra txikia arretaz irakurri eta ulertzen ez bada, aholkua eskatu.

Ezer sinatu aurretik, dena arretaz irakurri behar da eskaintzan azpimarratu nahi ez den eta oso garrantzitsua izan daitekeen informazioa egon baitaiteke.

Kreditu bat sinatzeko, zorrak elkartzeko edo ordainketa-geroratze bat eskatzeko garaian edozein zalantza izanez gero komeni da aholkua bilatzea. Horretarako Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoetara, Eusko Jaurlaritzaren Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Sailaren Lurralde Bulegoetara edo Kontsumitzaileen Elkarteetara jo daiteke.

